

## **MURILLO GAZTEA ERAKUSKETA**

**2009ko urriaren 19tik 2010eko urtarrilaren 17ra**

**Bilboko Arte Eder Museoa, BBK aretoa**

**Babeslea: BBK**

**Sevillako Arte Eder Museoarekin egindako koprodukzioa. Andaluziako Juntako Kultura Saila (2010/02/18–2010/05/30)**

**Murilloren gaztaroari eta lehen helduaroari buruzko aurreneko erakusketa. 42 artelan; 25 atzerriko bildumetakoak dira, eta horietako 16 lehen aldiz egongo dira ikusgai gure herrialdean.**

1645 aldean, Murillok bere lehen arrakasta artistikoak izan zituen, eta goranzko karrerari ekin zion, Francisco de Zurbaránen ginetik egotera ere helduz (sasoi hartan, Zurbarán zen Sevillako eszena artistiko errespetatuko margolaririk estimatuena). Lehenengo garai hartan, gai erlijiosoak islatzeko modu pertsonalaren funtsezko elementuak agertzen hasi ziren Murilloren pinturan, ikuslearen emozioak zuzenean ukituz.

Urte haietan, aurreko belaunaldiko maisuen eragina (tartean zeuden Herrera Zaharra, Zurbarán eta Ribera) islatu egiten zen gaiaren berehalako errealismoan, argien gaineko estudio bikainetan eta argi-kontrasteetan, eta lanen materiaren behaketarekiko gustuan, Abraham Bloemaert holandarraren estapan eraldaketa naturalistaren eta errealismoaren alde eginez.

*Murillo gaztea* erakusketan, Bartolomé E. Murilloren (Sevilla, 1617—1682) gaztaroko 42 lan daude bilduta. Garai hori ez da larregi aztertu orain arte, baina, hala ere, oso garrantzitsua da margolariaren ibilbidean; izan ere, bere karrerako ondorengo zenbait lanen orientazioa ere zehaztu zuen, erakusketan ikusi ahal izango denez. Bere prestakuntza garaitik eta lehen helduaroetik, erakusketaren antolatzaileak diren Bilboko eta Sevillako Arte Eder Museoei ale esanguratsuak dituzte —*San Pedro malkotan* (c. 1650—1655) eta *San Lesmes* (c. 1655), Bilboko museoan, eta *San Frantziskoren estigmatizazioa* (c.1650) eta *San Jeronimo penitentzian* (c. 1665), Sevillakoan—. Alfonso E. Pérez Sánchez eta Benito Navarretek garatutako proiektu museologikoa ikerketa prozesu luze baten ondorioa da. Horren bitartez, 1640 eta 1655 arteko hamabost urteen berri eman nahi da, garai hartan hasi baitzen Murillo artista gisa trebatzen.

Maisu sevillarrari dagokionez, jendeak gehien ezagutzen dituen lanak helduaroakoak dira, non “estilo arina” delakoa modu argiagoan formulatzen baita, barrokoaren ondorioz. Aldiz, 23 eta 38 urte bitartean egin zituen lanek errealismo nabarmena dute, eta gai erlijiosoak islatzeko erabiltzen zuen estiloaren elementuak erakusten dituzte. Era berean, hasierako lan hauetan, bere ondorengo hizkerako osagai formalak ere suma daitezke. Garai hau ez da modu monografikoan aztertu orain arte, balio artistiko eta interes handikoa izan arren, garai hartako testuinguruari dagokionez.

Urrezko Mendeko literaturaren eragina islatzen duten mihiseak dira, eta, bereziki, Murillok Mateo Alemánen *Guzmán de Alfarache* lanaren gainean egindako asimilazioa nabarmendu behar da (liburu hori 1602an editatu zen Sevillan, eta margolariak bere liburutegian zeukan). Gainera, sasoi hartako arazo sozialen inguruan margolariak zeukan sentsibilizazioa ere argi ikus daiteke lanotan.

Beraz, Murilloren trebakuntza-garaia jorratzen duen lehenengo erakusketa da; era berean, lehenengo naturalismoarekiko lotura eta frantziskotarrek predikatzen zuten justizia sozialaren doktrinarekiko zeukan identifikazioa ere aztertzen da bertan. Gainera, bere lana marko kultural baten eta mentalitateen historiaren barruan aztertzen den lehen aldia ere bada.

Horretarako, nazioarteko hainbat museo eta bilduma aipagarrik mailegu garrantzitsuak egin dituzte, eta, lankidetzaz horri esker, erakusketako piezak bildu ahal izan dira, eta oraintxe jartzen dira ikusgai lehen aldiz. Instituzio hauek nabarmendu behar dira: Cambridgeko Fitzwilliam Museum, Stockholmeko Nationalmuseum, Raleighko (AEB) North Carolina Museum of Art, Baionako Bonnat Museoa, Madrilgo Ondare Nazionala, Louvre Museoa, Municheko Alte Pinakothek, Detroit Institute of Arts, Genoako Palazzo Bianco, Castresko Goya Museoa, Pradoko Museoa, Lisboako Museu Nacional de Arte Antiga, Dublingo National Gallery of Ireland eta Japoniako Mie Prefectural Art Museum, besteak beste.

Erakusketako katalogoak nazioarteko erreferentzia izan nahi du, Murillori buruzko historiografia artistikoaren barruan. Horretarako, testuak eta fitxa komentatuak idatzi dituzten adituak bildu dira; besteak beste, Benito Navarrete, Alfonso Pérez Sánchez, Ignacio Cano, Odile Delenda, Enrique Valdivielso eta Karin Hellwig.

## **Hasierako lanak**

1640 eta 1655. urteen artean, Murillo margolari gaztea zen, Juan del Castillo maisuaren eskutik irten berria. Bere jaioterrian, Sevillan, presente zegoen tradizio naturalistatik edan zuen, eta Herrera Zaharrarengandik eta Zurbaránengandik jasotako tradizioa eta manierismo holandar eta flandestarreko iturri berritzaileak uztartu zituen bere hizkeran. XVII. mendearen hasieran, Sevilla hiri oparo eta kosmopolita zen. Gainera, estanpen merkatu, Indietaranzko ate, eta ordena erlijioso eta pintura-bildumagile ugariren egoitza ere bazen. Mendearen erdialdetik aurrera hiria gainbehera hasi bazen ere, Murillok ibilbide arrakastatsua egin zuen han. Bere bizitza osoan, ia irten ere ez zen egin hiritik, aparte uzten baditugu ustez Indietara eta Madrilera egin zituen bidaia bana (azken hori, gertatu bazen, 1642an izan zen, eta orduan ezagutu omen zuen Velázquez; hala ere, bidaia bietako bat ere ez dago dokumentatuta), eta 1658an Gortera egin zuen beste bidaia bat (bidaia hori bai dago dokumentatuta).

Erakusketaren lehenengo atalean, New Yorkeko bilduma pribatu batetik ekarritako **Autorretratu** lanaz gain, bere hasierako zenbait obra daude ikusgai –Sevillako Artzapezpikutzako Jauregiaren jabetzako **Ama Birjina, Santo Domingori arrosarioa ematen**, Cambridgeko Fitzwilliam Museumen **Ama Birjina, frai Lauterio, San Frantzisko eta Santo Tomasekin** eta Stockholmeko Nationalmuseumen **Bi Hirutasunak**–. Lan horietan, ondo ikusten da Murillok zenbat zor dien pintura italiar eta holandarreko erduei, arte mota hori estanpen bitartez ezagutzen zuen eta. Era berean, argiak dira Juan del Castillo maisuaren, Sevillan bizi zen Juan de Roelas flandestarraren eta Juan Martínez Montañésen erliebe eskultorikoen eraginak.

## Klaustro Txikia

Hurrengo aretoan, Murillori Sevillan egin zioten lehenengo enkargu garrantzitsuen parte izan ziren sei mihise daude ikusgai, lehen aldiz: hain zuzen ere, gaur egun desagertuta dagoen San Frantziskoren komentuko Klaustro Txikiko programa piktorikoa. Multzorri horri esker, artista handi gisa zuen ospea haziz joan zen; izan ere, margoak leku publiko batean zeudenez, jendeak errazago ezagutu ahal izan zituen. Kontuan izan behar da San Frantziskoko plaza hiriko gune soziala zela garai hartan. Udaletxeko arkuaren atzetik sartzen zen klaustorra, eta, bertan, frantziskotarrek pobrezia eta karitatearen idealak hedatzen zituzten (ideal horiek mihiseetan agertzen diren mirarietan ere ikus daitezke). San Fernandoko Arte Ederren Erret Akademiaren jabetzako **San Frantzisko, aingeruak lasaitua** eta **Alcaláko San Diego, txiroei jaten ematen**, Raleighko (AEB) North Carolina Museum of Art museoaren **Frai Gil beatoa, estasian Gregorio IX.aren aurrean**, Toulouseko (Frantzia) Agustindarren Museoaren **Alcaláko San Diego estasian Gurutzearen aurrean**, Baionako Bonnat Museoaren **Hortako San Salvador eta Aragoiko inkisidorea** eta Ondare Nazionalak Sevillako Alkazarrean lagatako **San Frantzisko Solano eta zezena** dira margolaria erabat ospetsu bihurtu zuten lanak, eta agerian uzten dute bere artea zelako mailara heldu zen 1645ean (oso arin beraz).

## Kontzientzia soziala

Aipatutako komentuko frantziskotarrekin zeukan harremanaren ondorioz, Murillori kontzientzia soziala piztu zitzaion, eta, horrela, babesik gabekoei eta ume eskaleei eskainitako lanak egin zituen, Pérez de Herrera medikuaren idealetatik eta haren *Amparo de pobres* liburutik sortutako eztabaida sozialean parte hartuz. Giro hori Mateo Alemánek idatzitako literatura pikareskoko *Guzmán de Alfarache* liburuan zegoen jasota, eta lan horrek miserable eta babesgabeen gaineko kontzientzia piztu zuen berarengan. Louvre Museoaren **Eskale gaztea**, Municheko Alte Pinakothek erakundearen **Atsoa oiloarekin eta arrautza-saskiarekin** eta **Bi mutiko meloia eta mahatsa jaten**, Koloniako Wallraf-Richartz Museum-Fondation Corboud delakoaren **ljito atsoa umearrekin** eta Wiltshireko (Stourhead, Erresuma Batua) The Hoare Collection bilduman gordetzen den **Irule zaharra** (erakusketak berretsi egin du lan hori konposizio ospetsuaren original galdua dela) garai horretako maisulanak dira.

Mihise hauek —Caravaggio, Ribera, Velázquez eta pintura holandarraren eragina sumatzen da bertan— euren jabe diren instituzioen ezohiko maileguak dira, eta multzo aparta osatzen dute hemen. Bertan islatzen diren gai profanoak sustraitu egin ziren Murilloren ondorengo ideietan, baina, hemen, Sevillako eguneroko errealitatearen alderdirik latz eta zakarrenak ez dira ezkututzen; izan ere, Sevillan, eskaleak ugari ziren, eta bertako giro sozialak guztiz hunkitu zuen margolariaren sentsibilitatea.

## Kristoren haurtzaroa

Hurrengo atala Kristoren haurtzaroari buruzkoa da. Ikonografia horretan, argi geratzen da Murillo oso trebea zela gai sakratuetan eguneroko bizitzako elementuak sartzeko orduan.

Nabarmendu beharra dago lehen aldiz batera ikus daitezkeela Murillok ***Atsedena Egiptoranzko ihesean*** gaiari buruz egin zituen bi bertsioak. Horietako bat Detroit Institute of Arts erakundeak laga du, eta bestea, berriz, Genoako Palazzo Bianco. Gauza bera gertatzen da “Ama Birjina Umearekin” gaiaren errepresentazioekin ere: Lierreko (Belgika) Museum Wuyts-Van Campen en Baron Caroly delakoarena (lan hori duela gutxi aurkitu da), Castresko Goya Museoarena edo Pradoko Museoarena. Oso interesgarria da, halaber, Glasgowero Pollock Houseren ***Ama Birjina Umearekin eta San Juanitorekin*** mihise ospetsua (lan hori *La Serrana* izenarekin ezagutzen da). Horretaz gain, Hagako Noordeindeko Erret Jauregiaren bildumako parte izan zen ***Familia Sakratua, arotzaren tailerrean*** lana aztertuz gero (gaur egun, Parisko bilduma partikular batean dago), margolariaren hasierako sorkuntza-prozesua ezagutu ahal izango dugu. Garai berekoa da, era berean, erakusketa honetarako zaharberritu den eta Lisboako Museu Nacional de Arte Antigaren jabetzako den ***Santa Katalinaren ezkon-hitz mistikoak*** lana. Gai intimistei eskainitako atal honi amaiera emateko, Pradoko Museoak giro estetiko eta artistiko bera duen ***Txoritxoaren Familia Sakratua*** ospetsua laga du.

## Mihise monumentalak

Neurri handiko mihiseen artean, ***Jose eta Putifarren emaztea*** (Alemaniako Kasseleko Staatliche Museen museoaren ezohiko lagapena) eta ***Afari Santua*** lan tenebrista (Sevillako Santa María la Blanca elizaren jabetzako) nabarmendu behar dira —azken horretan, antza denez, Murillok bere autorretratua egin zuen, San Joanen figuran—. Bestetik, Sevillako Artzapezpikutzako Jauregiaren jabetzako den ***Sortzez Garbia frai Juan de Quirósekin*** lanak ederto erakusten du zelako maisutasuna zuen Murillok Sortzez Garbia islatzeko orduan. Hain zuzen ere, denbora luzez, gai hori bere produkzioa ezagunena eta laudatuena izango zen. Azkenik, atal honetan ***San Agustín, Kristoren oinak garbitzen*** lan monumentalak ikus daiteke (Valentziako Arte Eder Museoaren jabetzako da).

## **Maria Magdalena eta Alexandriako Santa Katalina**

Ondoren ikus daitezkeen Maria Magdalena eta Alexandriako Santa Katalinaren ikonografiak indar espresibo handiko atala osatzen dute.

Lehenengo santuari dagokionez, hogeita hamar urterako basamortura zelan joan zen ikusten da, damututako penitentea izan zen eta. Erakusketa honetarako, Magdalenaren lehenengo bertsioetako bat aurkitu da, eta hori bereziki interesgarria da. Lan hori 1640an egin zuen Murillok, giro osoa Zurbaránen eraginpean zegoenean. Londresetik ekarritakoa da, eta Murillo gaztearen lana ikertzeko interes handia duen berragerpena da. Duen indarragatik eta errealismo izugarriagatik, kontrastea egiten du Dublingo National Gallery of Ireland museoaren eta Arango Bildumaren bertsioekin (lan horiek ere erakusketan daude). Azkenik, Richmondeko (AEB) Virginia Museum of Art museoaren **Andre Maria Magdalena, munduko plazerrei uko eginez** dago. Bertan, izenburuak dioen bezala, santuak uko egiten die mundu honetako ondasunei. Ehun urte baino gehiago dira lan hori ez denetik gure herrialdean erakutsi.

Alexandriako Santa Katalinaren bi bertsioei dagokienez, Focus-Abengoa Fundazioarena —erreturatu “jainkotiarra”— egundoko berreskurapena da. XIX. mendean Soult mariskal frantziarrak Sevillako Santa Katalina elizatik hartu zuenetik, mihisea bilduma ingeles ugaritatik igaro da, eta erakusketa honetarako egin den ikerketak lana Murillorena dela berretsi du. Azkenik, Japoniako Mie Prefectural Art Museumek lagatako **Alexandriako Santa Katalina martiria** ere aurkikuntza garrantzitsua da: Diego Angulo historialariak aztertu zuen —berak idatzi zuen Murillori buruzko katalogo arrazoitua— Londresko bilduma pribatu batean, eta ez zen berriro agertu, harik eta Japoniako museoak eskuratu zuen arte.

## **Ikuspena, estasia eta penitentzia**

*Murillo gaztea* erakusketari amaiera emateko, estasian dauden santu penitenteen atal bat dago. Bilboko Arte Eder Museoaren **San Pedro malkotan** eta **San Lesmes** eta Pradoko Museoaren **San Jeronimo penitentzian** lanen bitartez, margolariak omenaldia egin zion Ribera maisuari, eta, gainera, lanok argi uzten dute Murillok ezin hobeto gizatiartzen zituela bere pertsonaiak.

Lan hauek, Anberesko Amaren katedraleko eta Sevillako Arte Eder Museoko **San Frantzisko** bertsio biekina batera, erakusketa-proiektu honen jatorrian daude. Modu horretan, alde batetik, Bilboko eta Sevillako Arte Eder museoetako bildumen ezagutzen sakondu da, aipatutako bi museoek antolatu baitute erakusketa hau; eta, bestetik, lehen aldiz, pintura espainiarreko artistarik esanguratsuenetako baten karrerako funtsezko urteak (baina ez lar ezagunak) aztertu ahal izan dira.

**JARDUERA DIDAKTIKOAK**  
**BABESLEA BBK**

Museoko Hezkuntza Sailak bisita bat proposatzen du, pintura barrokoaren argi eta itzalak deskubritzeko, eta tailer esperimental bat, Murilloren irudia gure errealitatearekin lotzeko.  
Tel. 94 439 61 41

[www.museobilbao.com](http://www.museobilbao.com) (Hezkuntza)